

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroak guretzako enpresaren sustraiak dira, horregatik oso ondo zainduko ditugu eta haiekin harremanak sortzeko hiru mota izango ditugu, haien artean hauek aurkitzen dira:

- LAGUNTZA PERTSONALA

Honako laguntza mota dendan bertan emango da. Bezeroekin harremanean jarriko gara pertsonalki eta haien arazo eta zalantzak argituko ditugu. Erosleari giro eroso eskainiko diegu gure dendara bueltatzeko gogoz egon dadila.

- AUTOZERBITZUA

Gure enpresak autozerbitzua izango du, hau da, webgune bat non bezeroek antolatzailea erosteko aukera izango duten. Honen bidez, bezeroek ez dute dendara joateko beharrik izango eta etxetik antolatzailea erosteko aukera izango dute. Era honetan, bezeroekiko harreman autozerbitzua sortuko genuke, haiek bakarrik antolatzailea erosteko aukera izango baitute. Guk kontratatutako enpresa baten bidez gure produktua bananduko dugu.

- KOMUNITATEAK

Bezeroekin izango dugun harremanetako bat komunitatea izango da. **Bazkide egiten diren bezeroentzako atal bat izango dugu**, ordaindu gabe, **deskontuak, promozioak, eskaintza bereziak eta gehiago jasoko dituzte**. Deskontuez gain, opariak eta sari bereziak jasoko dituzte, eta, jakina, merkealdiak bestean baino lehen egongo dira. Horrela lortuko dugu bezeroek berriro erosi nahi izatea. Nahi duten bezeroek edozein erosketan izango dute eskuragarri.

DESKONTUAK

- Generikoak: Orokorrean deskontuak jarriko ditugu, udako zein neguko behaldietan esaterako. Black Friday denboraldia ere aukera ederra izango da bezeroak erakartzeko.
- Partikularrak: Lehen esan bezala, enpresako komunitatearen kidea izanez gero, puntuak lortu ditzakezu erosketak eginez, eta hauekin deskontuak lortzeko aukera izango duzu.

EROSKETAREN OSTEAN

- Bezeroek deskontuak eta publizitatea jasoko dute, alde batetik Gmail bitartez eta beste aldetik propaganda bitartez. Horrela, ez dute inoiz ahaztuko emandako tratu ona eta arazoren bat egonez gero webgunean kritikak jartzeko atal bat jarriko dugu. Bezeroak publizitatea jasotzen badu, gure enpresan berriro erostea eta bertan kontsumitzea lortuko dugu, bezeroak mantenduz eta salmentak lortuz.
- Gainera, bezeroa pozik badago, bere lagunei azalduko die gure proiektua eta ahoz-ahoz zabalduko da gure produktua.

